


→ BRONKIOLITIS AKUTUA. PREBENTZIOA ETA ZAINKETAK



ZER DA?

Biriketako bronkio txikietan eragina duen infekzio bat da. Birus batek eragiten du, normalean arnas birus sintzitalak (ABS). Epidemia garaian agertzen da, urritik martxora bitartean, eta batez ere **2 urtetik beherakoei** eragiten die. Gehienetan koadro arina da, baina haur goiztiarretan, 6 hilabetetik beherakoetan edo aldeztu aurretik osasun-arazoren bat dutenetan larriagoa izan daiteke; batzuek ospitaleko tratamendua behar izaten dute

ZER SINTOMA DITU?

- Hasieran, katarro arruntaren sintomak agertzen dira: eztula eta mukiak. Baliteke sukarra izatea.
- 2-4 egun igaro ondoren, arnas zailtasunak ager daitezke. Nabaritzen da arnasa azkarrago hartzen duelako eta jatea kostatzen zaiolako.
- Batzuetan, bularraldean zaratak entzuten dira, saihestasun markatzen zaizkio, bularra hondoratzen zaio edo tripa mugitzen du arnasaldi bakoitzean.

PREBENITU DAITEKE?

Bai, eskuak garbituta eta hotzeria edo katarroa duten pertsonekin kontaktua saihestuz.

Gainera, gomendatzen da **hautzaindegira ez eramatea** bronkiolitis akutua diagnostikatu badiote; izan ere, pertsonatik pertsonara transmititzen da, eztul edo doministiku egitean eta kutsatutako gainazalak ukitzean. Amagandiko edoskitzeak infekzio hauetatik babesten du.

Gainera, 2023-24 denboraldian, produktu immunizatzaile bat emango da (Nirtsebimab-a); izan ere, **berehalako babes**a eskaintzen du, eta, egungo datuen arabera, kasuen %80an baino gehiagotan ospitalizazioa saihesten du.

2023ko uztailaren 1etik 2024ko martxoaren 31ra bitartean jaiotakoei zuzenduta dago, bai eta txertoa hartzean 24 hilabete baino gutxiago dituztela gaixotasun larria izateko arrisku handia duten haurrei ere (2021eko azaroaren 7tik aurrera jaiotakoak).

Injekzio bidez ematen da, izterreko muskuluan. Txertoen albo-ondorio berberak izan ditzake, eta ohikoena hauek dira: erupzioa larruazalean, sukarra eta mina ziztada-tokian. Kontraindikaturak dago printzipio aktiboarekiko edo eszipienteren batekiko edo aurretiko dosiekiko hipersentikortasuna dutenen kasuan.



→ BRONKIOLITIS AKUTUA. PREBENTZIOA ETA ZAINKETAK

NOLA TRATATZEN DA?

Gaur egun ez dago bronkiolitisa sendatzeko medikamenturik. **Tabako-kearen** eraginpean egotea **saihestu** behar da nola edo hala, sintomak okerragotu baititzake.

Gehienetan **hobera egiten du 2 asteko epean**, baina ez tulka jarrai dezake denbora luzeagoan.



NEURRI OROKORRAK

Oro har, prozesu arina da, eta neurri orokor hauekin sendatzen da:



• Sudur-garbiketak, sudurra mukirik gabe mantentzeko.



• Hartualdiak tartekatzea, elikadura eta hidratazio ona izateko.



• Erdieserita egotea, arnasa hartzea errazteko.



• Antitermikoak, sukarra badago.

INFORMAZIOA



• Zalantzaren bat baduzu edo haurrak hilabete gutxi baditu, gaixotasun kronikoren bat badu edo goiztiarra bada, hitz egin pediatriako taldearekin, egoera balora dezan.



Bronkiolitis Akutua